

EUSKAL EMAKUME IDAZLEEN I. TOPAKETA

Arizkuneko Berro Txuri edo Baserri Txuri izeneko etxean izan zuen leku joan den Otsailaren 27-28ko asteburuan, Euskal Emakume Idazleen I. Topaketak.

Asteburu euritsua jasan behar izan genuen hara hurbildutako-
ok, eta jakinaren gainean gainera, eguraldiak askoren asmo eta
ahaleginak biderdian utziko zituela. Horrela bada, Itxaro
Bordak luzatutako gonbiteari eta norabide zehatzei jarraituz,
kotxe bat juxtu-juxtu igarotzeko hainako zabaleroa zuen zubi
erromatar baten ondorenean aurkitu genuen, elkar ezagutzea
eta emakumeak euskal literaturan duenislada berbakizun iza-
tea helburu zuen lantaldea zai.

Leku baketsu eta aparta aukeratu zen enkontrurako, emaku-
meok egunean zehar izaten ditugun eginbehar guztietatik al-
denduta sentitzeko alegia, geure buruarekin bakarrik, aske eta
lasai, ausnarketari bidea errazteko.

Zazpi izan ginen hara batutakoak: Yolanda Arrieta, Maite
Gonzalez, Amaia Gorosabel, Arantxa Iturbe, Miren Agur
Meabe, Arantxa Urretabizkaia eta ni nerau, Ana Urkiza. Gaur
egun, Euskal Herrian euskaraz idazten dugunon % 25 inguru.
Baina kopurua ez zen inolako muga izan, Nafarroako herrixka
guretzat hain barnerakoi gertatu zen hartara erakarri edo bul-
tzatu gintuzten gaiak landu eta helburuak betetzeko.

GAI ANITZ BERBAKIZUN, IDAZKETA ETA EMAKUMEA BILTZEN DITUEN ERREALITATEAREN INGURUAN

Emakume Idazleen I. Topaketa honetan, emakumea eta idazte saioa edo prozesua zer diren definitzen ahalegintzetik urrun, bi elementuok bilbatzen dituen errealitatearen aurpegi ezberdinei buruz hitzegitea ikusi zen beharrezko. Eta han esandakoen berri ematen da aditzera ondorenean, laburpen gisa.

Emakume idazleen huma edo idazlana ixila ote?

Beheko sua piztu eta etxea girotu ondoren, emakumeok orokorki, ixilean idazten dugula esanez eman genion hasiera saialdiari.

Ixilean idaztearen ideiak aspektu anitz ulertzen eta iradokitzen dituela baieztatu genuen ordea: etxeko zeregin mila egin ondoren gelditzen zaigun edo ateratzen dugun une apurrean idazten dugula, idazteak ez duela gure bizipenen unibertso osoa betetzen, emakumeak bizitzaren ikuspegi nimiño baina zehatzak deskribatzeko erabiltzen duela literatura, nolabait hizki handiz idazten den LITERATUR gaietan kontenplatzen ez dena... Eta baita, emakumeari, anartean, ez zaiola suposatu, argitaratzeko idazten duenik.

Arestian aipatu ixiltasunaren arrazoi nagusiak bi beraz:

1. Orain artean jorratu gabeko unibertso ezberdin bati buruz ari zaigula emakumea literaturan.
2. Behar bezainbat ez argitaratu izana.

Zein da literaturaren lekua emakumeontzako?

“Nik gustatzen zaidalako idazten dut” esanez eman zion gai honi hasiera Yolanda Arrietak. “Idazterako orduan berdin zait gogoko banaute edo ez. Neretzako idazten dut. Niri zait gozamen”.

Ideia honen haritik, emakumeontzako orokorrean, literaturak ez duela gure bizitzako helburu bakar eta nagusia suposatzen ondorioztatu genuen. Baina sormen behar izugarria sentitzen dugula, hori uka ezinezkoa zitzaigun. Eta sormen behar hori, bi mailatan sentitzen dugula gainera: familia edukitzeko behar eta nahia batetik eta sormen literarioa bestetik. Bigarren honek ordea, gure baloreen artean, ez du sekula lehenengoa baztertzen, eta lehenengoak bai bigarrena indartzen, nahiz eta denbora edo dedikazioa lapurtzen dion.

Kontutan hartutako beste aspektu bat dedikazioarena izan zen preseski. Eta dedikazio falta horrek ez ote duen pizten idazle izatearen eta ez izatearen arteko eztabaida.

Nork esaten du idazle garela?

Emakumeari zaila egiten zaio “idazle” titulua soineratzea, “idazle izatearen kontu hori beharbada gizonezkoena izan delako orain arte” esango zuen Aratxa Urretabiazkaiak, “edo idazle izateari dedikazio jakin bat suposatu izan diogulako, eta guk emakume garen aldetik eta etxeko ardurakizunak direla eta, dedikazio ahalmen delako hori ez dugulako alegia”, gehituko zuen Yolanda Arrietak. “Emakumeari gogorra zaio IDAZLEA NAIZ esatea; baieztapen horrekin gizarteari zerbait zor diola sentitzen duelako, erantzunen bat eman behar diola edo horrelako zerbait”. Emakumeak sormen literarioa bere bizitzako helburu nagusi gisa hartzen ez duen bitartean, bere bizitzako egunen eta orduen zatirik handiena dedikatzen ez dion heinean, “aldizka dela idazle” esatea gustorago izango du eta errazago egingo zaio “aldizka dela idazle onartzea” esanez ondorioztatuko zuen Arantxa Urretabizkaiak.

Zeintzuk dira emakume idazlearen gaiak literatur sorkuntzan eta sorkuntza horren prozesuan?

“Emakumearentzat gaia BIZITZA da, eguneroko TASUNA osatzen duen bitxikeriarik txikiena, egunerokoa bizitzen eta

irauten laguntzen dion arrazoirik nimiñoena, eguneroko detailerik ederrenen kudeatzaile eta jabe izatearen sentsazioa, unibertsoa osatzen duten elementurik txikien ezagutza osoa...”.

“Emakumearen lanak ez du mundu honetako ez harantzagoko loriarik bilatzen, emakumeak berak bizi dituen bizipen txiki baina indartsu eta zehatzak deskribatu eta azaltzea baizik. Emakume sortzaileak unibertsoa azaltzea du helburu, baina ez unibertsoa bere hartan ulertuta, unibertsoko elementuen mugimendu, portaera, gura, oinaze eta nahiak ezagutzen eta barne-bizi dituen heinean baizik...”.

Tankera honetako azalpenak jaso ahal izan genituen emakumeek literatur sorkuntzan lantzen dituzten gaiei buruz.

Emakumea eta esparru publikoa.

Emakumeak duen idazteko zaletasuna eta sormenari zor dion obra, beretzako baizik egina ez den lana da. Lan horrek ez du gizonezkoaren lanen zirkuitu bera ezagutzen. Neurri horretan, emakumearen proiektuak emakumearenak dira, ez publikoarenak. Gizona da PUBLIKOA.

Anartean, emakumeak ez du literaturaren esparru publikoa bere lurralde gisa ulertu. Ez zaiola gustuko esan ohi du. Baina baieztapen hori horrela al da? Ez ote da izango emakumeak bere burua ez duelako haintzat haina? Ez ote da publikotasunak eskatzen duen “glamour”-a bere eguneroko TASUNArekin bat ez datorrelako?

Emakumea mundu txiki askoren jabe da, baina mundu horiek ez dira traszendenteak, ez publikoak,...

Emakumeak, pertsonaia gisa, zer nolako rola betetzen du euskal literaturan?

Emakumeak pertsonaia bezala, bigarren mailako rola betetzen du ia-ia euskal literaturaren historia guztian, eta baita gaurkoan ere. Euskal emakume eta etxeko-andrearen irudia, bere familiaren zorionaren alde borrokatzen den andrearena

da eta irudi hori letren bidez moldatua da, gaur hirian bizi den emakumea, etxetik kanpo lanean diharduen emakumea eta le-tretara heldu den emakumearen ikuspegia ezberdina baita.

Emakumearen aldeko diskriminazio positiboa esparru publikoan

Gaur egungo diskriminazio positiboak efektu bitxi bat sor-tzen du emakumeengan, "ningunear" delakoarekin deskribatu dena. Hau da, ekintza publiko gehienetan, dela hitzaldietan, dela mahai-inguruetan, dela beste ezein ekintzatan, lehendabi-zi, tratatu beharreko gaiaren inguruan hitzegingo dutenen ize-nak (gizonezkoenak gehienetan) erabakitzen dira, eta ondo-ren, emakumeei deitzen zaie; maiz gehienetan kopurua zain-tzeko, hau da sexuen arteko balantza mantentzeko, eta ez, mahai horretara bilduko diren emakumeek, beren onez, zer-bait esateko dutela erizten delako. Emakumearen erabilera es-parru publikoan kuantitatiboa da kualitatiboa baino areago, eta jokaera honekin, emakumeak izan lezakeen indarra ahul-tzea baizik ez da lortzen. Hau da, emakumeak lehen baino presentzia handiagoa du publikoan, baina "emakume ahots gabea" da oraindik, eta horrek, efektu kontrakoa sortzen du emakumearen irudiarengan: ezebezaraztearena, hain zuzen.

Aurrera begira...

Arizkunera eraman gintuzten helburuak betekotzat jo geni-tuenean, akordio pare bat hartu genituen taldean:

1. 1999ko Iraila erdi inguruan II. Enkontru edo Topaketa an-tolatzea erabakitzen da, hortarako koodinatzaile Ana Urkiza izendatzen delarik.
2. I. Topaketen fruitu gisa, KUTIXIAK gaiaren inguruan ba-koitzak ipuin bat idaztea erabakitzen da. Gonbite hau euskal emakume idazle guztiei zabalduko zaiela eta lanak Iraileko enkontruan jasoko direla, liburuki batetan bildu eta argitaratzeko asmoz.

Hurrengo tokapetak edo enkontruak lehenengoaren haina aberasgarri izango direlakoan, elkar agurtu eta sei hilabeteren buruan egindako eta idatzitakoen berri eman gogoz gelditu ginen, zubi erromatarraren oinean utzitako autoak hartu eta bakoitza bere herrira eta etxera bueltatzeko segidan.

Ana Urkiza